119

83

# Zugarramurdi (autos)

por uno de Saldias de Basaburua menor

ARCHIVO

✠

# Credoa

Sinisten dut, Jaungoico Aita guciz poderosua baitan, ceruaren eta lurraren creatzalean: eta Jesucristoaren seme bacar gure Jaunaren baitan, ceiñ concebitua izancen Espiritu Sainduaren obraz eta graciaz: eta sortuzan virgiña Mariarenganic, padecitu zuen Poncio Pilatosen manuaren azpian; izan cen crucificatua, illa eta sepultaratua: guatusizen infernuetara: irugarren egunian birtucen illen artetic: igancen Ceruetara, eta dago yarriric Jaungoicoa Aita gucíz poderosuaren escuñeco aldean: andic etorri bear du illac eta vicíac yuzgatcera. Sinisten dut Espiritu Sainduaren baitan, Eleiza Ama Saindu catolicoa, Sainduen comunionea, becatuen barcamendua, aragiaren biztea vicitza seculacoa.

Amen.

Articulo fedecoac dirá amalau: Sembicico zazpiac tocatcen dirá Jaungoicotasunari; eta berce zazpiac Jesucristo gure Jaun, Jaungoico eta eguiazcoaren guizontasun Sainduari.

Jaungoicotasunari tocatcen direnac dirá oyec.

Lembicicua, sinestea Jaungoico guciz poderoso batean.

Bigarrena, sinestea Aita dela.

Irugarrena, sinestea Semea dela.

Laugarrena, sinestea Espiritu Saindua dela.

Bostgarrena, sinestea Creatzalea dela.

Seigarrena, sinestea Salbatzalea dela.

Zazpigarrena, sinestea glorificatzalea dela.

Guizontasun Sainduari tocatcen direnac dirá oyec.

Lembicicua, sinestea Jesucristo gure Jauna guizontasunean, izan cela concebitua Espiritu Sainduaren obraz eta graciaz.

Bigarrena, sinestea sortu cela Santa Maria Virginarenganic, celaric au virgiña semea sortu baño len, sortcean, eta sortuz guero.

Irugarrena, sinestea errecibitu zuela eriotza eta pasionea, gu becatariac salbatceagatic.

Laugarrena, sinestea yeutsi cela infernuetara, eta atera cituela aren allegatce sainduaren esperoan zauden justuen arimac.

Bostgarrena, sinestea irugarren eguinean biztucela illen artetic.

Seigarrena, sinestea igancela ceruetara, eta dagoala yarriric Jaungoico Aita gucic poderosuaren escuiñeco aldean.

Zazpigarrena, sinestea etorrico dela illac eta viciac yuzgatcera; errannay da, onei ematico gloria ceren guardatu cituzten aren Manamendu Saindüac; eta gaiztoei betico pena, ceren etcituzten guardatu.

## Salbea

Jaungoicoac salba zaitzala Erreguiña eta misericordiaren Ama, vicitza eztitasun eta esperanza gurea; Jaungoicoac salba zaitzala. Zu deitcen zaitugu Evaren hume desterratuac, zuganaa gaude suspiroz, sentimentuz eta negarrez, negarrezco valle unetan. Ea bada Señora, gure Abogada, itzultcizu gure gana zure begui misericordioso oriec, eta destierro onen ondoan eracuts zaguzu Jesus zure sabelecо fruitu bedicatua. O gucic bonatcha! O piadosa! O Virgina Maria dulcia! Otoitz eguzu gutaz, Jaungoicoaren Ama Saindua, merecí dezagun alcanzatcea Jesucristo gure Jaunaren promesac.

Amen.

## Contriciomezco acta

Jesucristo nere Jauna, Jaungoico eta guizon eguiazcoa, nere creatzalea eta nere redentorea, zu cerana ceranagatic, eta ceren maitatcen zaitudan gauza guciengañetic, damu dut Jauna, vriotz guciric zu ofenditiea; eta artcen dut proposito firmea ez geyago becaturic eguiteco; confesatceco, eta confesoreac ematen diren penitencia cumplitceco, eta apartatceco becatu eguiteco ocasio gucietaric. Ofrecitcen dizquitzut Jauna, nere vicia, obra, eta trabajuac nere becatuen satisfacionetan, eta arcen dut confianza zure ontasun eta misericordia neurri gabecoan barcatuco dizquidazula nere becatu gucioc zure odol precioso, Pasione eta eriotzaren merezimentuac gatic, eta emanen diratzula gracia emendatceco, eta vicitceco zure cerbitzu Saindu an eriotceranocoan. Amen.

## Confesio generala.

Ni becataria confesatcen natzayo Jaungoico gucis poderosuari, Bienaventuratu beti virgina Mariari, Bienaventuratu S.^n Miguel arcangeluari, S.^n Juan Bautistari, Apostolo Saindu S.^n Pedro eta S.^n Pablori, Saindu gucici, eta zuri nere Aita espirituala eguindudala becatu anitz pensamentuz, itzaz, eta obraz, nere culpaz, nere culpaz, nere culpa gucis aundiaz: orren gatic erreguitcen diot, Bienaventuratu beti virginaa Mariari, Bienaventuratu San

Miguel Arcangelori, S.n Juan Bautistari, Apostolo Saindu S.n Pedro eta San Pabloi, Saindu guciei, eta zuri neure Aita espiritualá erregu dezazuelá nitaz Jaungoico gure Jaunari. Amen.

Jaungoicoaren leguezco manamenduac dire amar: lembicico irurac tocatcen direnac Jaungoicoaren honrrari, eta berce zazpiac lagun proximoaren provechuari:

Lembicicoa, Jaungoicoa maitatcea gauza gucien gañetic.

Bigarrena, Vanoan juramenturic ez eguitea.

Irugarrena, besta egunac santificatcea.

Laugarrena, Aita eta Ama honrratcea.

Bostgarrena, nior ez iltcea.

Seigarrena, luxuriazco becaturic ez eguitea

Zazpigarrena, ez ebastea.

Zortzigarrena, falso testimonioric ez goratcea ez eta ere guezurric erratea.

Bederatcigarrena, lagun proximoaren emazteric ez deseatcea.

Amargarrena, berceren ontasunac codiciaz ez deseatcea.

Amar Manamendu oyec encerratcen dire bitan:

Lembicicoa dá Jaungoicoa cerbitzatcea eta maitatcea gauza gucien gañetic:

Bigarrena cere lagun proximua cere burua berala.

Amen.

Doctrina Cristavaren declaracionea galdetuz eta erespondetuz.

Galdetcendut: Cristava zara?

Erespondetcen dut: Bai Jauna Jaungoicoaren graciaz.

G. Cristavaren icen ori norenganic izan cenduen?

E. Jesu Cristo guere Jaunaren ganic.

G. Cer erran nai du Cristavac?

E. Jesu Cristoren guizona.

G. Cer entenditcen duzu Jesu Cristoren guizona?

E. Jesu Cristoren fedea duen guizona, cein profesatu baizuen Batayuan, eta aren cerbitzu saindura ofrecitua dagona.

G. Cein ~~entenditcen duzu Jesu Cristoren~~ da Cristavaren Señalea?

E. Gurutce Saindua.

G. Cergatic?

E. Cergatic baita Irudia Cristo gurutcean yosiarena ceinetan redimitu bai guinducen.

G. Cembat maneretan usatcen du Cristavac señale untaz?

E. Bietan Jauna.

G. Cein dire?

E. Cinatcea, eta santiguatcea.

G. Cer da cinatcea?

E. Eguitea iru gurutce escuñeco escuco beatz aundiarequin, Lembicicoa copetan. Bigarrena agoan. Irugarrena pechuetan minzatcen garelaric Jaungoicoa guere Jaunarequin.

G. Eracutsi zazu nola?

E. Gurutce Sainduaren ✠ señalea gatic, guere ✠ etsayetaric, libra gaitzatzu ✠ guere Jauna eta Jaungoicoa.

G. Cergatic ciñatcenduzu copetan?
E. Jaungoicoac libra gaitzan pensamendu gaisto etatic.
G. Cergatic agoan?
E. Jaungoicoac libra gaitzan itz gaisto etatic.
G. Cergatic pechuetan?
E. Jaungoicoac libra gaitzan obra eta deseo gaisto etatic.
G. Cer da Santiguatcea?
E. Eguitea guruitce bat escuñeco escuco bi beatcequin, copetatic pechuetaraño, eta ezquerreco sorbaldatic escuñecoraño, deitcen dugularic Trinidade guciz Saindua.
G. Eracutsi zazu nola?
E. Aitaren, eta Semearen ✝ eta Espiritu Sainduaren icenean. Amen.
G. Noiz usatu biarduzu seinale ortaz?
E. Obra on bat eguiten asten geran gucietan edo arquitcen geranean necesidade, tentacione edo peligroan, principalqui gracetic yequitcean, echetic aterratcean, elizan sarcean, yateracoan eta lotaracoan.
G. Cergatic orremberce aldiz?
E. Cergatic dembora eta lecu gucietan guiz etsayac tentatcen eta perseguitcen gaituzten.
G. Cer etsay dire oriec?
E. Demonioá, Mundua, eta Araguiá.
G. Badu guruitceac virtutea oquen contra?
E. Bay Jauna.
G. Nondic du guruitceac virtute ori?
E. Ceren Jesu Christoc garaitu cituen artan bere eriotzarequin.
G. Guruitcea adoratcen duzuenean, nola erraten duzu?

E. Adoratcen zaitut ceren zure guritce Sainduaveguin erredivinitu cinuen mundua.

Doctrina cristavaren berechsounza.

Ia ecusi dugu cristava zarela, cristavaren icen eta señaletic, erran zadazu orain:

G. Cembat gauza dago cristava obligatua yaquitera eta entenditcera uso arrazoverzcora allegatcen danean?

E. Lau gauza Iauna.

G. Cein dire?

E. Yaquitea cer bear duen siñetsi, cer escatu, cer obratu, eta cer errecibitu.

G. Nola yaquinendu cer bear duen siñetsi?

E. Daquiezquelaric Credoa edo Articulo fedecoac.

G. Nola yaquinen du cer bear duen escatu?

E. Daquiezquelaric Aita gurea, eta gañeraco Elizaren oracioneac.

G. Nola yaquinendu cer bear duen obratu?

E. Daquiezquelaric Iaungoicoaren legueco Mandamentuac, Eliza Ama Sainduarenac eta obra Misericordiazcoac.

G. Nola yaquinen du cer bear duen errecibitu?

E. Daquizquilaric Eliza Ama Sainduaren Sacramentuac.

Doctrina Cristavaren lembicico partea, ceinetan esplicatcen da' Credoa eta Articulo fedecoac.

G. Erraçu lenic, ¿Norc erran zuen Credoa?

E. Apostoluac Jauna.

G. Certaco?

E. Guri fedeco gauzac eracusteco.

G. Eta zuc certaco erraten duzu?

E. Cristavac dugun fede au aitortceco.

G. Cer gauza da' fedea?

E. Icusi ez duguna sinestea.

G. Icusi cinuen zuc Jesu Cristo sortcen?

E. Ez Jauna.

G. Icusi cinuen iltcen, edo Cerurat igaten?

E. Ez Jauna.

G. Sinisten duzu?

E. Bay Jauna.

G. Cergatic sinesten duzu?

E. Cergatic Jaungoicoac gure Jaunac ala' errevelatu du, eta Eliza Ama Sainduac ala' erracusten digu.

G. Cer gauza dire' cristavac becela dituzunac eta sinisten dituzunac?

E. Eliza Ama Sainduac dituenac eta sinisten dituenac

G. Cer gauza dire' zuc eta Eliza Ama Sainduac dituzuenac, eta sinisten dituzunac?

E. Articulo fedecoac principalqui Credoan dadden becela.

G. Cer gauza dire' Articulo fedecoac?

E. Dire fedearen misterio principalenac.

G. Certaco dire' Articulo fedecoac?

E. Ematico noticia berechsa Jaungoi-

co

gure Jaunarena, eta Jesu Cristo gure Redentorearena.

G. Nor da Jaungoico gure Jauna?

E. Da gauza bat erran, eta pensatu alditequeen baño escelentiagoa eta miragarriagoa: Jaun bat infinitoqui ona, Poderosua, Jaquinsua, Justoa, eta gauza gucien astea eta fiña.

G. Trinitate gucir Saindua nor da?

E. Da Jaungoicua bera Aita, eta Semea, eta Espiritu Saindua, iru persona diferenteac, eta Jaungoico bat bacarra eguiazcoa.

G. Aita Jaungoicoa da?

E. Bay Jauna.

G. Semea Jaungoicoa da?

E. Bay Jauna

G. Espiritu Saindua Jaungoicoa da?

E. Bay Jauna

G. Iru Jaungoico dire?

E. Ez baicican Jaungoico bat bacarra eguiazcoa, nola baita ere bat bacarra Eternoa eta bat bacarra Jauna.

G. Aita Semea da?

E. Ez Jauna.

G. Espiritu Saindua Aita edo Semea da?

E. Ez Jauna

G. Cergatic?

E. Cergatic personac diferenteac dire, eguiazco Jaungoico bat bacarra den arren

G. Orrela beraz, cembat Naturaleza, Entendimentu, eta vorondate dire Jaungoicoaren baitan?

E. Naturaleza bat soilla, Entendimentu

bat soilla, eta vorondate bat soilla.
G. Eta cembat persona?
E. Iru diferenteac cein bait dire, Aita eta Semea, eta Espiritu Saindua.
G. Nola da Jaungoicoa gucir poderosua?
E. Cergatic bere podore soillarequin egui ten du nay duen gucia.
G. Nola da Createalea?
E. Cergatic deus ecetic eguin ituen gauza guciac.
G. Eta cer finetaraco creatu du Jaungoicoac guizona?
E. Vicitza untan cervitzatu dezan aren Magestadea, eta guero gozatu dezan vitzaz eternuan.
G. Nola da Salvatzalea?
E. Cergatic ematen du gracia eta barcatcen becatuac.
G. Nola da glorificatzalea?
E. Cergatic ematen dio gloria aren gracian irauten dunari
G. Badu Jaungoicoac gorputzaren figurarie guc bezala?
E. Jaungoicotasunean ez Jauna, ceren bait da Espiritu purua baño bay gizontasunean.
G. Iru persona Divino etatic ceiñ eguin cen guizon?
E. Bigarrena cein bait da Semea.
G. Aita eguiñ cen guizon?
E. Ez Jauna.
G. Espiritu Saindua eguiñ cen guizon?
E. Ez Jauna
G. Bada ceiñ?
E. Soilqui Semea ceiñ guizon eguiña deitzenda Jesu-Cristo.

G. Orrela beraz, nor da Iesu=Cristo?
E. Dá Iaungoico bicivaren Semea guizon eguin cena gu erredimitceagatic, eta nolacvei bear guinuen ejemploa emateagatic.
G. Eta cembat naturaleza, vorondate, eta entendimentu dire Iesu-Cristoren baitan?
E. Bi naturaleza, bat Iaungoicotasunecoa, eta bertcea guizontasunecoa; bi vorondate, Iaungoicotasunecoa bat, eta guizontasunecoa bertcea; eta bi entendimentu, bat Iaungoicotasunecoa, eta bertcea guizontasunecoa.
G. Eta cembat persona eta memori?
E. Iaungoicotasuneco persona bat bacarra, cein bait da Trinitate gueiz Saindueco bigarrena; eta guizontasuneco memoria bat bacarra, ceren Iaungoicotasunian ezt du memoriaric.
G. Cer erran nay du Iesusec?
E. Salvatzalea.
G. Ceritatic salvatu guinducen?
E. Gure becatutic, eta Demonioaren captivotasunetic
G. Cer erran nay du Cristoc?
E. Señalatua.
G. Certaz izanen señalatua?
E. Espiritu Sainduaren gracier eta doayez.
G. Iesu-Cristo gure Iauna nola izan cen concebitua, eta sortu cen Ama virginaren gamic?
E. Obratcen zuelaric Iaungoicoac naturalezaz gain eta milagroz eguin.

G. Cergatic erraten dezu naturalezaz gain eta milagrozqui?

E. Cergatic Jesu Cristo etcen concebitua izan, etcen eta sortu bertce guizonac bezala?

G. Nola obratu cen bada aren concepcioneco misterioa?

E. Espiritu Sainduac Maria virguiñaren entrañetan, señora onen odol guciz garbitic formaturuen gorputz bat guciz perfectua, creaturuen deus ez etic anima bat, eta unitu zuen gorputz ari, eta instante berean gorputz eta anima onen unitu zen Jaungoicoaren Semea, eta modu onetan len Jaungoico soil cena, Jaungoicotasunaz gabetu gabe, gueldituzen guizon eguiña.

G. Nola sortu cen milagrozqui?

E. Aterатcen celaric Maria Santisimaren sabelatic dañuric eguin gabe aren virguintasunari, iguzquiaren arguia cristal batetic pasatcen den bezala, ez autsi eta ez manchatcen duela.

G. Aren Ama izatu cen guero beti virgen?

E. Bay Jauna, beti.

G. Cergatic nay izan zuen ill gurutzean?

E. Gu becatutic eta infernu eternotic libratceagatic.

G. Bada nola erorten gara becatuan?

E. Eguin zuelacoz becatu gure lembicico Aita Adanec, aren baitan guciac becatu eguiten dugu.

G. Cer comprenditcen duzu Ynfernuaz ceruètara yautsi baicen Iesu-Cristo ill eta ondoan?

E. Ez condenatuan lecura, baicican Limbora nom baizauden justuac.

G. Eta bada Ynfernu bat baño gueyago?

E. Bay Jauna: badiré lau lecuraen barrenean; eta deitcen diré condenatuen Ynfernua, Purgatorioa, aurren Limboa, eta Iustoen Limboa, edo Habrahanen senoa.

G. Cer gauza diré?

E. Condenatuen Ynfernua da lecua, nora yuatten bait diré becatu mortalean illtcen direnac, iratecoan eternoqui atormentatuac: Purgatorioa da lecua, nora yuatten bait diré graciaco estaduan illtcen direnen arimac, beren becatuez osoqui satisfatu gabe, iratecoan garbituac tormentu terribleaequin: Aurren Limboa da lecua nora yuatten bait diré uso arrazoyerc osa baño len bateayoric gabe illtcen direnac: Eta Iustoen Limboa, edo Habrahanen senoa da lecua, nora ~~guré Redencionea~~ verificatu artearño yuatten ciren Jaungoicoaren gracian illtcen cirenen arimac, egon ondoan osoqui purgatuac: eta lecu bera cerùètara eguiarqui eta realqui yautsi cen Iesu-Cristo.

G. Nola yautsi cen?

E. Arima Jaungoicotasunarequin unituric.

G. Eta aren gorputza nola guelditucen?
E. Jaungoicotasunarequin berarequin unituric.
G. Nola viztucen irugarren egunian?
E. Zurmaturic guentatcera bere gorputz eta arima gloriosua beinere berriz ez illtceco.
G. Nola igan cen cerucetara?
E. Bere virtute propioz
G. Cer da egotea yarria Aita Jaungoicoaren escuñeco aldean?
E. Izatea Jaungoicotasunean gloria bordin arequin, eta guizontasunean bere iñorc baño aundiagoa.
G. Noiz etorrico da illac eta viciac jurgatcera?
E. Munduaren acaberan.
G. Eta orduan ill guciac viztu bear dute?
E. Bay Jauna, izan cituzten gorputz eta arima beherequin.
G. Eta mundua acabatu baño lenago, guizonac izanen dire jurgatuac?
E. Bay Jauna, guciac beren viciaren acabanzan, jurgatu eta sentenciatuco ditu Jaunac, onac gozatcera etenogui Jaungoicoaz glorian, eta gaiztoac sufritcera tormentu eternoac infernuan.
G. Cer sinesten duzu erraten duzunean, sinesten dut Sainduen comunionea?
E. Fielac dutela parte beheren on espiritualetan direlacoz gorputz baten membroac ceñ bati da Eliza.
G. Nor da Eliza?
E. Da cristau fielen unionea ceinen buruna da Aita Saindua.

G. Nor da Aita Saindua?

E. Erromaco Pontifice principala, Iesucristoren vicarioa lurrean, ceinguoiac gaude obligatuac obeditcera.

G. Credoz eta Articuloz landara, ainitz ten duzu berce gauzaric?

E. Bai, Iauna, Escritura sagraduan dagon guzia eta cembeit Iaungoicoac berce elizari erravelatu bait dio.

G. Cer gauza dire oriec?

E. Ori irakasdazula galdetu ni ignorante oni: Eliza Ama Saindua bait ditu doctoreac erresponditcen zaguinen ditenac

M. Onguí diozu Doctorekin dagoguiala, eta ez zuri ematea Ascheguí cortina fedeco gaucez: zuri asqui zaitzu ematea Articuluen Credoan daudelan berala.

(Fin de la 1.a parte.)

Doctrina cristavaren bigarren partea ceiñetan declaratcen da cer bear den escatu, eta Eliza Ama Sainduaren oracioneac?

Ia icusi dugu nola daguizun cer bear duzun siñetsi ein baitela lembicicoa: goacen bigarrenera ceñ baitda cer bear dan escatu.

G. Iruan zazu, nore eman zuen Aita gurea?

E. Iesucristoc Iauna.

G. Certaco?

E. Guri otoitz eguiten iracasteco.

G. Cerda otoitz eguitea?

E. Da Iaungoicoari viotza goratcea, eta favoreac escatcea.

G. Cembat mavenetarà da otoitza?
E. Bietarà: bat espirituala eta bertcea vocala edo agozcoa.
G. Cer gauza da otoitz espirituala?
E. Da eguiten dena Arimaco potenciac exercitatuz, oroitcen garalarik memoriarequin cembait gauza onaz; pensatcen eta discurritcen dugularic arengañean entendimentuarequin; eta eguiten ditugula vorondatearequin asco acta, becatuen damucoac beralo, edo asco deliberacione nola den confesatceco, viciar mudatceco.
G. Cer gauza da otoitz vocala edo agozcoa?
E. Da eguiten dena navarri diren itzequin, Aita gurea errecitacion eguiten duguna berala.
G. Nola eguin bear da otoitz?
E. Atencione, humildade, confianza eta iraupenarequin.
G. Aita gurea erraten ducunean norequin minzatcen zara?
E. Jaungoico guire Jaunarequin.
G. Nundago Jaungoico guire Jauna?
E. Locu gucietan, eta particularqui Ceruetan, eta Aldareco Sacramentu gucir Sainduan.
G. Jesu-Cristo guizona berala nundago?
E. Soilqui Ceruan eta Aldareco Sacramentu gucir Sainduan
G. Cein da otoitcetan den oberena?
E. Aita gurea Jauna.
G. Cergatic?
E. Cergatic erran zuan Jesu-cristoc bere agoz Apostoluac ecatuzic.

G. Cergatic gueyago?
E. Cergatic dituen zarpi peticione caridade guciàn princatuac.
G. Ceìn dire?
E. Lembicioua da, Santificabedi zure icena.
G. Cer escatcen duzu peticione orretan?
E. Iaungoicoaren icena izan dadiela eraguitua eta honrratua mundu gucian.
G. Ceìn dá bigarrena?
E. Betor gure gana zure erreinua.
G. Cer èscatcen duzu peticione orretan?
E. Iaungoicoac erreinà dizala gure arimetan emen lurrean graciar, eta guero eman dizaguela bere gloria.
G. Ceìn dá irugarrena?
E. Eguin bedi zure borondatea ceruan bezala lurrean ere.
G. Cer escatcen duzu peticione orretan?
E. Eguin dezaguela Iaungoicoaren borondatea lurrean gaudenac, Ceruan Bienaventuratuac eguiten duten bezala.
G. Ceìn dá laugarrena?
E. Iguzu eguin gurì egunoreco oguia.
G. Cer escatcen duzu peticione orretan?
E. Eman dizaguela Iaungoicoac conveni den mantenua gorputzaraco graciaren mantenu espirituala, eta Sacramentuac arimareco.
G. Ceìn da bostcarrena?
E. Barcadietzaguzu gure zorrac, guc zor gaituztenei barcatcen diotegun bezala.

G. Cer escatcen duzu peticione orretan?
E. Barca dietzagula Jaungoicoac gure becatuac, gue barcatu diguen berala agraviatu eta gaizqui eguin diguteneri.
G. Cein da Seigarrena?
E. Ezgaitzazula utci, tentacion erortcera
G. Cer escatcen duzu peticione orretan
E. Jaungoicoac ez gaitzala utci erortcera, ez eta consentitcera pensamendu eta tentacione gaichtoetan ceiñequin demonioac procuratcen dú gu becatuan erortaztea.
G. Cein da Zazpigarrena?
E. Baicic libra gaitzazu gaitcetic.
G. Cer escatcen duzu peticione orretan?
E. Jaungoicoac libra gaitzala arimeco eta gorputzeco gaiz eta peligro gucietatic
G. Cergatic erraten duzu lenic Aita gurea ceruetan zaudena?
E. Jaungoicoari viotza goratceco, eta escatceco humildade eta confianzarequin
G. Cer erran nay du arquenean erraten duzun, Amen itz arrec?
E. Ala izandadiela.
G. Cer oracione erraten tiyozu principalqui Maria Santisimari?
E. Ave Maria, eta Salvea.
G. Norc erran zuen Ave Maria?
E. Arcangel San Gabrielec, gure Señora virgina Maria salutatcera etorri zanean.
G. Norc erran zuen Salvea?
E. Eliza Ama Sainduac dadaca erreçibitua

G. Certaco?
E. Gure Señorari favorac escatceco.
G. Ave Maria edo Salve errasten duzunean norequin itz eguiten duzu?
E. Gure Señora virgina Mariarequin.
G. Nor da gure Señora virguiña Maria?
E. Da Señora bat virtutez betea, ceña baitda, Jaungoicoaren Ama, eta dago cerúan.
G. Eta Aldarean dagoena nor da?
E. Da Cerúan dagonaren imagiña eta figura bat ó semejanza.
G. Certaco dago Aldarean?
E. Aren ródez orogaitecen cerúan dagonez, eta aren imagina delacoz eguin diozagun erreverencia.
M. Bada modu berean eguin bear diozu berce Sainduchen imaginai, eta ehequin religionari.
G. Eguin bear diogu ere oracionea Aingueruei eta Saindu guciei?
E. Bay Jauna gure ortarteco berala.
G. Cer gauza dire Ainguruac?
E. Dire espiritu bienaventuratu bat zuec, Jaungoicoaz gozatcen Cerúan daudenac.
G. Certaco creatu cituen Jaungoicoac gure Jaunac?
E. Eternoqui alabatu eta bedica dezaten.
G. Eta Certaco gueyago?
E. Aren ministruac berala goberna dezaten Eliza, eta guardatu guironac.
G. Berez, zuc badezu Ainguerú guardicoa?
E. Bay Jauna, eta guironehetatic bacotchac badu berea.
M. Bada izan zayozu devocione aunitz, eta encomenda zaitez ari eguneoro.

Fin de la 2.ª parte

Iruganren partea ceiñetan declaratcen dā cer bear den obratu.

Iousi dugu siñetsi eta esatu bear duzuna; orai dezaguin no ba daguizun obratu bear duzuna: errazu=zazu.

G. Oin dā Jaungoicoaren leguero lembicico manamendua?

E. Jaungoicoa maitatcea gauza gucien gañetic.

G. Nore maitatcen du Jaungoicoa?

E. Aren Manamendu Sainduac guardatcen dituenac.

G. Cer dā Jaungoicoa maitatcea gauza gucien gañetic?

E. Nayago izatea gauza guciac galdu, ēnago, ari ofenditu baño.

G. Certara gueyago obligatcen gaitu Manamendu onec?

E. Adoratcera Jaungoicoa bacarric animaco eta gorputzeco erreverencia aundienarequin siñisten eta esperatcen diguelaric gure baitan fede osoarequin.

G. Nore eguiten du becatu Manamendu onen contra?

E. Lembicicorric, Idolo edo Jaungoico falsoac adoratcen dituenac edo eliquin baitan siñisten duenac: 2º fedearen contra den gauzaren bat siñisten duenac, edo fedeco misterio ceimbaitez duda duenac, edo necesario direnac ez daquizquenac: 3º Fedeco, esperanzazco eta caridadezco actac obligatua dagon demboran, eguiten ez dituenac, edo Jaungoicoaren misericordia baitan confianza galtcen duenac.

Ai Sacramenturen bat, bear den disposi-
cioneric gabe erreciditen duenac.
G. ¿Nor(c) gueyago?
E. Auguriatan sinisten duenac, eta edi-
ceria edo gauza superticiosoz usaten
duenac
G. ¿Cein da bigarrena?
E. Vanoan juramenturic ez eguitea.
G. ¿Noc eguiten du juramentu vanoa?
E. Iuramentu eguiten duenac eguia gabe,
justicia gabe eta necesidaderic gabe.
G. ¿Cer da juramentu eguitea eguiaric gabe?
E. Iuramentu eguitea batec sinisten due-
nen contra, edo gueruraranguin.
G. ¿Eta cer becatu eguiten du, juramentu
eguia gabe, edo eguia den seguir iran
gabe eguiten duenac?
E. Becatu mortala naiz juramentua
iran dadien gauza arinaren ga-
ñean.
G. ¿Cer da juramentu eguitea justiciaric gabe?
E. Iuramentu eguitea gauza injusto, eta
gaichstoa nola den eguitea lagun pro-
gimuari gaizquiren bat.
G. ¿Cer becatu eguiten du juramentu egui-
ten duenac justicia gabe?
E. Gauza injustua andia bada, becatu
mortala, eta chiquia bada, venial.
G. ¿Cer da juramentu eguitea necesidade-
ric gabe?
E. Iuramentu eguitea causa aundiric
gabe, edo guti valio duten gauzac
gatic
G. ¿Eta cer becatu da au?
E. Venial ez faltatcearequin juramentu-
rez ~~eta~~ eguiaren ez justiciari.

G. Eta ceimbait gaura on eguiteco juramentu, voto, edo promes eguiten duena, dago obligatua cumplitcera?

E. Bay Jauna, eta ez cumplitcea edo dembora aundiá luzatcea, dá becatu mortala gaura aundiá bada.

G. Becatu dá vanuan juramentu eguitea creaturac gatic?

E. Bay Jauna ceren creaturetan juramentu eguiten zayo creadoreari.

G. Nola eguiten dá juramentu creaturac gatic?

E. Erraten delaric; nere arima gatic, cerua gatic, lurragatic &c. au onela dela.

G. Cer erremedio dá vanoan juramenturic ez eguiteco?

E. Ez edo bay erratéco seguida bat artcea, Jesu-cristoc eracusten digun berala.

G. Eta debecatcenda deus gueyago manamendu unetan?

E. Bay Jauna, debecatcen ere dá blasfemia, ceïn bait da erratea itz injuriosuac Jaungoicoaren, edo aren Saindúen contra; eta dá becatu mortala.

G. Ceindá irugarrena?

E. Besta egunac santificatcea.

G. Nore santificatcen ditu besta egunac?

E. Ebetan meza osoa encuten duenac, eta necesidaderic gabe trabajatcen ezdenac.

G. Eta cer becatu eguiten du necesidaderic gabe besta egunetan trabajatcen denac?

E. Bi ordu baño gueyago trabajatcen bada, becatu mortala; eta gutiago eguiten bada, regularqui venïala.

G. Ceïn da laugarrena?

E. Aita eta Ama honrratcea.

G. Norc honratcen ditu guratsuac?
E. Obeditcen, socorritcen, eta errespetacen dituenac.
G. Nor equiten dute becatu mortala onen contra?
E. Lembiccioric, humeac beren guratsuac obeditcen ez dituztenac echeco gobernuari, eta costumbre onei tocatcen diren gaucetan: 2. beren necesidadetan socorritcen ez dituztenac: 3. itz gaischtoac erraten dioztetenac, burla eguiten diotenac, yotcen dituztenac, eta matrimonioa celebratcea tratatcen dutenac ehequin bendicione eta consejuric gabe.
G. Nor bereric entenditcen dire guratsotzat?
E. Andiagoac adiñean, dignidadean, eta gobernuan.
G. Eta manamendu onetan comprenditcen dire humeac guratsoquico dituzten obligacioneac bereric?
E. Bay Jauna, buruzaguidac beren menecoen quico, eta guratsuac beren humeac quico dituztenac.
G. Eta ceiñ dire oyec?
E. Alimentatcea, eracustea, corregitcea, ejemplo ona ematea, eta dagoquioten estadua bere demboran.
G. Cer becatu eguiten dute obligacione oquere faltatcen diotenac?
E. Regularqui becatu mortala.
G. Ceiñ bostgarrena?
E. Nior ez iltcea.
G. Cer manatcen da manamendu ontan?
E. Iñori gaizquiric ez eguitea ez obraz, ez itzaz, ez eta deseyoz ere.

G. Nore equiten du becatu mortala manamendu unen contra?

E. Lembicioric, bere burnari edo bere progimuari oriotra edo bere gaitz aundiaren bat deseatcen dionac, eta odiua dionac: 2„ bere progimua illtcen, oritcen, edo golpatcen duenac: 3„ mozcortcen danac, bere osasunean calte eguin dioraquetenyan edanac eguiten dituenac, bere viciá galtceco arrisquan paratcen duenac, edo bere faltaz galtcen duenac: eta 4„ bere burnari edo bereri maldetcitcen dionac

G. Cer gaiza da maldecitcea?

E. Da escatcea batec berezat edo bereren zat gaizquiren bat, erranen bailuque bezala, or erorico alair illic.

G. Eta cer becatu da maldetcitcea?

E. Gaitz aundiaren deseyorequin bada, becatu mortala.

G. Eta gaitz aundiaren deseyoric gabe baldin bada?

E. Vzmiala, naiz ez aldi guzietan.

G. Bada nore eguiten dute becatu mortala, maldetcitcen dutelaric gaitz aundiaren deseyoric gabe?

E. Regularqui guratsuac eta burnanguidac, beren mencecen aitcincan maldecitcen dutenac; eta maldecitceco costumbrea dutenac, eta ez eguiten diligenciaric uzteco.

G. Eta cergatic orela?

E. Cergatic beren erranera, eta ejemplo gaischtoequin movitcen dituzte bereac Iaungoicoa gravequi ofenditcera, eta aur dá diotsen duna escandaloa.

G. Cein da seigarrena?

E. Luxuriazco becaturic ez eguitea.

G. Cer manatzen da manamentu untan?

E. Izan gaitecela garbiac eta castuac pensamentu, itz, eta obretan.

G. Norc eguiten dute becatu mortala manamendu unen contra?

E. Lembicicoric, advertenciarequin pensamendu garbi ezetan placer artzen dutenac, naiz ez obratu, ez eta ere desegatu obratzea: 2º gauza deshonestac erraten, eta cantatzen dituztenac, edo gustuarequin adizten dituztenac: 3º beren buruarequin, edo bercerequin utquice, edo accione deshonestoac izaten, edo izatea deseatzen dutenac.

G. Cein da zazpigarrena?

E. Ez ebastea.

G. Cer manatzen da manamendu untan?

E. Ez quentzea, ez iduquitzea, ez eta ere nay izatea berceren gauzaric bere yabearen vorondatearen contra.

G. Norc eguiten dute becatu mortala manamendu unen contra?

E. Berceren gauza quendu, iduqui, edo deseatzen dutenac, edo berce edozein maneraz proximoari bere ontasunetan calte aundia eguiten diotenac.

G. Eta onelacoac oyec gueldituen dire cenbait obligacionerequin?

E. Gueldituen dire obligacione aundiarequin itzultceco, eta satisfatzeco lembay len eguin diozcaten calteguciac.

G. Cein da zortcigarrena?

E. Faltso testimonioric ez alchatzea, ez eta ere guezurric erratea.

G. Cer manatcen dá manamendu untan?
E. Arinqui, au dá, motivoric eta funsaric gabe, proximoaz gaiqui ez juzgatcea; ez erratea, ez eta ere aditcea aren faltac.
G. Norc austen dú manamendu au?
E. Arrazoearen contra juzgatcen duenac, au da, artaraco motivoric asqui izan gabe fama quentcen duenac, secretoa aguertcen, edo guezurra erraten duenac.
G. Eta proximoari fama grabequi galtcen dioena erraten dituelaric artaz delito falsoren bat, edo guezurrarecoa, edo naiz eguiarecoa, baño secretoan zagoena, edo erraten dizquelaric cara a cara bere defectoac, gueldilcen da cerbait obligacionerequin?
E. Gelditcen dá obligatcera itzulcera quendu dion honrra, edo fama.
G. Cer debecatcen da bederatzigarren eta amargarreneco manamenduan?
E. Deshonestidadeco eta ontasunen deseyo sobratua.
M. Errazquizu Eliza Ama Sainduaren manamenduac.
Lembicicua, igandetan, eta berce besta guecietan meza osoa enzutea.
Bigarrena urtean bein bedere confesatcea, edo lenago illtceco peligroric espero badu, edo comecatu bear badu.
Irugarrena, bazco garizumacotan comecatcea.
Laugarrena, Eliza Ama Sainduac manatcen duenean barutcea.
Bostgarrena, Jaungoicoaren Elizari amarrenac eta primiciac osoqui pagatcea.

G. ¿Certaco dire manamendu oyec?
E. Jaungoicoaren legueoac obequi guardatzeco.
G. Eta lembicico Meza enzutecoac, ¿nor obligatcen ditu?
E. Uso arrazoyerco duten, batayatu guciac.
G. Eta nola enzun bear dute?
E. Egonez presente merará atencionerequin gauza espiritualen batera, nola den, meditatuz edo errezatuz devocionerequin.
G. Eta eguiarequi impeditua ez dagolarie enzuten ez duenac Meza, edo egoten denac artan, edo aren parte errepagarri batean atencioneric gabe, edo yartcen denac Meza ez enzuteco peligroan; ¿cer becatu eguiten du?
E. Becatu mortala Jauna.
G. Eta bigarren, eta irugarren confesatceco eta comecatceco ac; ¿nor obligatcen dituzte?
E. Becatu mortalen arpuian obligatcen dituzte, uso arrazoyerco duten Cristau guciac.
G. Eta gaizqui confesatcen edo comecatcen direnac, cumplitcen dute manamendu oyequin?
E. Inolaz ere ez, eta gauza ohotatic bacochean eguiten dituzte bi becatu mortal
G. Eta batec iltceco peligroan ez baldin badu confesoreric ¿cer eguin bear du?
E. Contricione perfectarco acta bat propósituarequin confesatceco
G. Eta laugarrena, cein bait da barutcea, ¿nor obligatcen ditu?
E. Oguei Eta bat urte bete dituztenac.

G. Eta nola barotu bear da?

E. Escusatcen delaric bat yanari debecatuetatic, eta eguiten duelaric otordu bat bacarra, eta ure eguerdien

G. Eta baruari faltatu gabe artu daitequé goicetic cerbait?

E. Causa nair ariñarequin artu daitequé oarabat berala.

G. Eta arrasean?

E. Artu daitequé colacionetaco concienci onetaco yendehetan usatcen dena, gal de eguiten diolaric, untar dudaric badu, confesore yaquinsun bateri.

G. Eta causa equiarecoric gabe barutcen ez direnac, cer becatu eguiten dute?

E. Mortala Jauna.

G. Eta manamentuac ez yateco araguiric vigilia, eta baru egunetan, ez nasteco oyetan araguia eta arraya otordu batean, ez yateco arraultceac eta esne gauzac garizuman, buldaric ez delaric nor obligatcen dituzte?

E. Usô arrazoaercoa duten guciac.

G. Eta cer becatu eguiten dute goardatcen ez dituztenac?

E. Mortala, eguneau faltatcen duten aldioro.

G. Obra misericordiarecoac dire amalau, zazpi ezpiritualac, eta bertce zazpi corporalac.

Ezpiritualac dire oyec,

Lembicicoa, ez daquienari eracutstea.

Bigarrena, bear duenari consegu ona ematea.

Irugarrena, uts eguiten duena corregitcea.

Laugarrena, injuriac barcatcea.
Bostgarrena, tristeac consolatcea.
Seigarrena, gure proximuaren faltac
eta flaquezac paciènciarequin su-
fritcea.
Zazpigarrena, viciez eta illez Jaungoi-
coari otoiz eguitea.

Zazpi Corporalac dire oyec.
Lembicicoa, eriac visitatcea.
Bigarrena, gosiac dagonari yatera ema-
tea.
Irugarrena, egarriac dagonari eda-
tea ematea.
Laugarrena, captivoac libratcea.
Bostgarrena, biluciac vertitcea.
Seigarrena, peregrinoei ostatua
ematea.
Zazpigarrena, illac enterratcea.
G. Cergatic deitcen dire misericor-
diazcoac?
E. Cergatic ez diren zor justiciaz.
G. Noiz obligatcen gade manamenduz?
E. Guizon pucicosen uscer, necesida-
dez aundiac diren chetan.
G. Obra misericordiazco oyen, eta bertce
Cristavac eguiten dituen obra onen
videz, nair izan ditecen manamen-
durcoac, nair devocionezcoac; cer
alcanzatcendu?
E. Jaungoicoaren gracian badago,
merecitcea chequin gatic gracia-
ren eta gloriaren aumentua; satis-
fatcea chequin bere becatuez; eta
consequitcea Jaungoicoaren ganic
onac, ala ezpiritualac nola tempo-
ralac conveni bazaizquio.

G. Eta cergatic erraten duzu Jaungoicoaren gracian badago?
E. Cergatic becatu mortalean estaduan eguiten diren obra onen bidez, ez dá merecitcen, ez eta ere satisfatcen, baicican soilqui alcanzatcen, cerbait maneretan beneficio cimbait Jaungoicoaren ganic.

Fin de la 3a parte.

Laugarren partea ceiñetan declaratcen dire errecibitu bear diren Sacramentuac.

Icusi dugu nola daquizun siñetsi, escatu, eta obratu bear duzuna; icus dezagun nola daquizun errecibitu bear duzuna, cein bait dá azquena.

Erran-citzu Sacramentuac.

Eliza Ama Sainduaren Sacramentuac dire zazpi.

Lembicico bortzac necesidadezcoac, cein errecibitu gabe, edo errecibitceco intencionea izan gabe ezdaiteque salvatu guizona urtea baditu desprecioz; berce biac dire vorondatezcoac.

Lembicicoa, Batayoa
Bigarrena, Confirmacionea
Irugarrena, Penitencia
Laugarrena, Comunionea
Bostgarrena, Oliadura
Seigarrena, Ordena
Zazpigarrena, Matrimonioa.

G. Cer gauza dire Sacramentuac?
E. Dire señale navari batzuec, Jesucristo gure Jaunac paratuac, ehequin sidez ematico guri bere gracia eta virtuteac.

G. Cer da gracia?

E. Da Jaungoicozco izate bat, eguiten du-
na guizona Jaungoicoaren humea, eta
Ceruco heredero.

G. Eta nola deitcen da gracia au?

E. Santificatcen duena.

G. Eta bada berce graci generoric onetaz
landara?

E. Badire berce batzuec deitcen ditugu-
nac prezentecoac, edo ausiliòac eta
inspiracioneac, ceiñic gabe ezdera-
queigu asi, ez eta ere acabatu vicitza
eternoraco bear den gauzaric.

G. Eta cer dire oyec?

E. Dire Jaungoicoac ematen digun soco-
rro batzuec gaizquia uztatceco, eta
onguia obratceco; nola bait dire ser-
monac; ejemplo onac, eriotza derre-
pentecoac, eta argui batzuec ceine-
quin Jaungoicoac arguitcen ditu gu-
re entendimentuac, eta deseo saindu
batzuec cenequin movitcen ditu gure
vorondateac onaraco.

G. Cer virtute ematen dituzte Sacramen-
tuac graciarequin batean?

E. Principalqui iru, Teologalac eta
divinoac.

G. Ceiñ dire?

E. Fedea, Esperanza, eta Caridadea.

G. Cer gauza da Fedea?

E. Ikusi ez duguna siñestea, ceren Jaun-
goicoac errevelatu duen.

G. Cer gauza da Esperanza?

E. Esperatcea gloria Jaungoicoaren gra-
ciaren eta gure obra onequin mediuz.

G. Cer gaura da Caridadea?
E. Maitatcea Jaungoicoa gauza gucien gai-
ñetic, eta gure proximuac gueren buruac
bezala, ehequin portatcen garelaric
ehec guregana portatcea naico guinu-
quen bezala.
G. Certaco izancen fundatua Batayoco Sa-
cramentua?
E. Quentceco becatu originala, eta bere edo-
ceiñ batayatcen den aren baitan dena
G. Cer da becatu originala?
E. Da becatu ure ceñequin guciac sortcen
gara heredatuac gure lembicico gu-
rasoaren ganic.
G. Eta necesidade ordsuan nor batayatu
dezaque?
E. Uso arrazoecoa duen, edoceiñ gui-
zon edo emaztec.
G. Eta nola batayatu bear du?
E. Ychurtcen duelaric ur naturala
aurraren buruaren gañera, eta erra-
ten duelaric, batayatceco intencione-
requin; nic batayatcen zaitut, Ai-
taren, eta Semearen, eta Espiritu Sain-
duaren icenean. Amen.
G. Certaco da Confirmacioneco Sacramentua?
E. Confirmatceco eta indartceco batayuan
errecibitu guinuen fedean.
G. Eta uso arrazoezco duenac, eta erre-
cibitcen Sacramentua au becatu mor-
talean; cer becatu eguiten du?
E. Becatu mortala Jauna.
G. Cer eguin bear du bada becaturic
eguin gabe errecibitceco?
E. Disponitu lenic eguiten duelaric con-
fesio on bat.

G. Certaco da penitenciaco Sacramentua?
E. Batayatu ez guerozt eguin diren becatuac barcatceco.
G. Cer bacatu dire oyec?
E. Mortalac, bay eta ere venialac.
G. Cer da becatu mortala?
E. Da erratea, eguitea, pensatcea, edo deseatcea cerbait Jaungoicoaren legearen contra gaucra aundian.
G. Cergatic deitcen da mortala?
E. Cergatic illtcen duen eguiten duen aren arima.
G. Eta noiz errecibitcen dugu penitenciaco Sacramentua?
E. Confesatcen gueranean ongui, eta errecibitcen absolucionea.
G. Cer parte ditu penitenciac becatu mortala quentceco?
E. Yru Jauna.
G. Cein dire?
E. Viotceco contricionea, agozco confesionea, eta obrazco satisfacionea.
G. Eta iru gauza preciso oyetan Sacramentua au errecibitu nai duenarenzat, encerratcen dire bercc ceimbait.
E. Bay Jauna; contricionean encerratcen da emendatceco propositua, eta confesionean conciencíaren examina.
G. Orela berar, ¿cembat gauza bear dire Penitenciaco Sacramentua errecibitzeco, edo bat ongui confesatceco
E. Bortz: cein bait dire concienciaren examiña, viotzaco contricionea, emendatceco propositua, agozco confesionea, eta obrazco satisfacionea.

G. Cer dá concienciaren examiñá?

E. Dá equitea bear diren diligenciac ondo ceco bat confesatu ez ditzen becatuen discurritzen dutlaric Jaungoicoaren, eta Elizaren manamenduetatic, ibilli tuen toqui, eta izan tuen ocupacionetatic escatu ondoren Jaungoicoari arguia eraguteco bere culpac.

G. Cembat maneretan da urrtceco contricionea?

E. Bietan: bat perfecta, eta bercea imperfecta, deitzen dutena atricionea.

G. Cer dá contricione perfecta?

E. Dolore edo damu bat Jaungoicoa ofenditu ez ceon nor den, au da, ceren den guciz ona, confesatceco, emendatceco, eta penitencia cumplitceco proposituarequin.

G. Cer da atricionea?

E. Dolore, edo damu bat Jaungoicoa ofenditu ez, edo becatuaren itsusta sunagatic, edo infernuaren beldurtasunagatic, edo ceren galdu duen gloria, confesatceco, emmendatceco eta penitencia cumplitceco proposituarequin.

G. Eta Dolore oyetatic cein da oberena?

E. Contricione perfectacoa.

G. Eta cergatic?

E. Cergatic contricione perfectacoa sortcen da humeac Aitari dion amodiotic; eta atricionecoa dion beldurtasunatic: contricione perfectaco dolorear, bat confesatu baño len barcatcen zaizquio becatu mortalac eta yartenda Jaungoicoaren gracian;

baño atricioneco dolore soillez ezt dirá consequitcen efecto ozec.

G. Eta bat onqui confesatceco asqui dá atricioneco dolorea, edo bear da contricione perfectacoa?

E. Comunqui erraten da asqui dela atricionecoa; baño obeago eta seguroago da eramatea contricione perfectacoa, eta au bear dá procuratu izatea confesatcen deñac.

G. Eta noiz izan bear da dolorea?

E. Confesoreac penitentea absolbitu baño len.

G. Cer gauza da propositua?

E. Deliberacione firme bat beiñere berriz Jaungoicoa gravequi ez ofenditcen

G. Cer da agozco confesionea?

E. Da manifestatcea enganio etaquezurric gabe becatu mortal guciac confesoreari; penitencia cumplitceco intencionerequin.

G. Eta lotsaz ichsiltcen duenac becatu mortalehen bat, edo confesatcen duenac eguin ez duen becatu aundiehen bat, edo eguiten duenac bere confesionea doloreric gabe, edo propositurie gabe, edo penitencia cumplitceco asmoric gabe, confesatcen da onqui?

E. Ez Jauna; eguiten du sacrilegio aundi bat eta gueldotcen da obligatua berriz confesatcera, confesatutituen becatuac, eta confesatu etzituenac, eguin zuen sacrilegiozcoarequin

G. Eta norc pensadezaquete ez dutela izan dolore eta propositu̇ric beren confesionetan?
E. Apartatcen ez direnac ocasionetatic, eta erorteen direnac becatu beretan confesione bat eta bercea eguiṅ ondoan.
G. Eta moviteeco bat eguiarco dolorea eta propositua formatcera, cer conveni izanen zayo eguitea?
E. Confesatcera allegatu baño len escatcea Jaunari socorri dezala bere auxiliochequiṅ, meditatu dembora puchsca batez, edo Jaunac eguiṅ diozcan favorechetan, edo aren eriotce eta passionean, edo aren ontasunean, eta beiṅ baño gueyagotan erran contricionezco acta.
G. Cer gauza dá obrazco satisfacionea?
E. Dá satisfatcea Jaungoicoari becatuen gatic zor diren pena temporalez, cumplitcen delaric confesoreac ematen duen penitencia.
G. Eta cer becatu eguiten du penitencia cumplitcen ez duenac, edo luzatcen duenac dembora aundiā cumplitceco?
E. Becatu mortala penitencia aundia bada.
G. Eta satisfa dezaguegu Jaungoicoari pena temporalez ematen zaicugun penitenciaz landara bercerequiṅ?
E. Bay Jauna: Jaungoicoaren gracian eguiten diren obra on generoz guciequiṅ, eta irabaciaz indulgenciac.
G. Cer gauza dirē indulgenciac?
E. Graci bat zuec eiñen didez conce-

ditcen da pena temporalehen bar camendua, pagatu bear dena becatuen gatic vicitza onetan edo bertcean.

G. Eta nola irabaci bear dire?

E. Eguiten delaric graciaco estaduan fiñ onetaraco manatcen dena.

G. Eta vicitza onetan satisfatu ez dutelacoz Purgatoriora yoaten direnac socorritu eta lagundu detzaqueguc guc?

E. Bay Jauna; satisfa dezaqueguc obra berehequin.

G. Eta bat becatu mortalean erorten den aldiero, bear du confesatu bereala, barcatceco?

E. Onguí izanen litezque baiño ez da necesario.

G. Cer eguin bear du bada?

E. Izan bere becatuez contricione perfectaco eguiazco dolorea, emendatceco propositoarequin, eta confesatceco Eliza Ama Sainduac manatcen duenean.

G. Cer gauza da becatu veniala?

E. Da becatu mortalaren prestaera bat.

G. Cergatic deitcen da veniala?

E. Cergatic errazqui erortcen da artan guizona, eta errazqui barcatcen zayo.

G. Cembat gauza gatic barcatcen zayo?

E. Bederatci gatic.

G. Ceïn dire?

E. Lembicicoa, meza enzutea gatic:
Bigarrena, comecatcea gatic:
Irugarrena, ur becatuaria erratea gatic:
Laugarrena, Obispoaren bendicionea gatic:
Bostgarrena, ur bedicatua artcea gatic:
Seigarrena, ogui bedicatua artcea gatic:
Zazpigarrena, Aita gurea erratea gatic:
Zortcigarrena, predicua aditcea gatic;
Bederatcigarrena, pechuac yotcea gatic;
Escatcen delaric Iaungoicoari misericordia, edo barcacionea.

G. Cergatic añaditcen duzu escatcen delaric Iaungoicoari barcacionea?

E. Entenditcera ematecò, erran diren gauza oyehec gatic conseguitcecotan becatu venialehen barcacionea; izan bear dugula ehotaz dolore naturalerar gaiñecoaren bat.

G. Eta obligatuac gaude becatu venialac confesatcera?

E. Ez Iauna: baño on da eta provechoso.

G. Eta arzquenecoo confesatu ez guero becatu venialac berceric ez duenari; ¿cer conveni izanen zayo eguitea dolorea eta propositua aseguratcecò?

E. Becatu venialez naiz confesa dadien, confesatu ere lenago vici pasatutaco becatu mortalehen bat.

G. Certaco da Cumunioneco Sacramentu guciz Saindua?

E. Dignoqui errecibitcen dugularic, izan dadien gure arimaren mantenua, eta aumenta dizoguen gracia.

G. Cergatic erraten duzu dignoqui?

E. Manifestatceco Sacramentua ou ez

Dela izanen gure arimaren mantenua ez badugu errecibitcen bear den disposicionerequin, ala arimaren nola gorputzaren partetic.

G. Bada cer disposicione bear da arimaren partetic?

E. Graciaco estaduan egotea.

G. Eta becatu mortalean erori cenac, nola disponitu bear du comecatceco?

E. Confesatcen delaric.

G. Eta confesatu ondoan becatu aundiaren batez oroitcen denac, cer eguin bear du?

E. Confesatu comecatu baiño len.

G. Eta gorputzaren partetic cer disposicione bear da?

E. Allegatu comecatcera (viaticoz ez delaric) baruric, deus yan eta ez edan gaue bezperaco gaverdi ez gueroz.

G. Cer errecibitcen duzu comunioneco Sacramentu guciz Sainduan?

E. Iesucristo Jaungoico eta guizon eguiazcoa Aldareco Sacramentu guciz Sainduan eguiazqui dagoana.

G. Beraz, cer dago hostian consagratu eta ondoan?

E. Iesu-cristoren gorputza bere odol, arima eta Jaungoicotasunarequin batean.

G. Eta Calizan?

E. Iesucristoren odola bere gorputz arima eta Jaungoicotasunarequin batean.

G. Beraz, Iesucristo gucia dago hostian eta Calizan?

E. Jesucristo guicia dago hostian guician, eta guicia hostiaren edoccin partetan, eta guisa berean Calizan.

G. Eta consagratu eta ondoan bada hostian oguiric, edo calizan ardoric?

E. Ez Jauna, baicican oguiaren eta ardoaren accidenteac, nola bait dire, colorea, usaina, eta gustoa &c.

G. Eta partitcen bada hostia, edo berechsten Calizan dena, partitcen edo berechsten dá Jesucristo?

E. Ez Jauna, guicia osoa gueldilcen dá parte guicietan eta chetaco bacotchean.

G. Eta comecatcera allegatcen denac, erran diren disposicioneac gabe, errecibitcen ote du Jesucristo?

E. Bay Jauna, baiño provechuric batere gabe, ceren eguiten duen becatu bat guciz aundia.

G. Eta aprovechacen diren chegui, erran diren disposicionez gaiñera, ¿cer conveni izanen zayote eguitea, fruitu aundiaguac consegui dizaten?

E. Comecatu baño len consideratu nor den, chequen gana elduden Jauna, egercitatu fedeco, esperanzaco, eta caridadeco actatan, recibitu humildade aundiarequin, eta erreverenciarequin, eta guero erran esquerrac beneficio aiñ aundiar.

G. Certaco da Oliadurraco Sacramentua?

E. Iru gauzatacaco.

G. Cein dire?

E. Lembicicoa, pasatu den vicitza gaichtoco arrastoac eta cutsuac quentceco.

Bigarrena, arimari indarrac ematecó demoniñoaren tentacioneben contra. Irugarrena, gorputzari conveni bada osasuna ematecó.

G. Ycó arrazoveucora allegaturic, evitatzen peligrosoan dagoana, obligatua dago Sacramentua au errecibitcera?

E. Bay Jauna; eta eguiten dute becatu mortala deraquitelaric errecibitcen ez dutenac, edo errecibitcen dutenac becatu mortalean.

G. Bada cer eguin bear du becatu mortalean dagonac Sacramentua au dignoqui errecibitceco?

E. Confesatu lenic, eta ez badaiteque confesatu, eguin contricione perfetaco acta bat.

G. Certaco da ordenaco Sacramentua?

E. Consagratceco eta ordenatceco Elizaren Ministroac dignoac, nola bait dire Sacerdoteac, Diaconoac eta Sudiaconoac.

G. Eta Elizaren Ministroac particularqui Sacerdoteac errespetatu bear dire veneracione distinguitu batequin?

E. Bay Jauna.

G. Certaco da Matrimonioco Sacramentua?

E. Ezcontceco eta ematéco ezcondusi gracia, ceiñequin vici daitecen elcarren artean baquean, eta aci diraten humeac cerurraco.

G. Eta Sacramentu au dignoqui errecibitceotan, ezcontcen direnac, Jaungoicoaren gracian egon bear dute?

E. Bay Jauna, eta ala ez badaudé eguiten dute becatu mortala.

G. Eta Jaungoicoaren gracian cautsitcen ez direnac, nola disponitu bear dute au errecibitceco?

E. Confesatcen dirdaric. (Fin.)

Becatu capitalac dirá zazpi.
Lembicicoa, Soberbia
Bigarrena, Avaricia
Irugarrena, Lujuria
Laugarrena, Ira
Bostgarrena, Gula
Seigarrena, Envidia
Zazpigarrena, Pereza.

G. Cergatic deitzen dituzu capitalac comunqui mortalac deitzen diren zazpiac?

E. Deitcen dirá capitalac, cergatic ehetatic sortcen diren berce vicioehen buruac, iturriác, eta zaiñac bezala, eta mortalac deitcea ez da aiñ onguí, bada aunitz aldiz ez dire venialac baicic.

G. Noiz dire mortalac?

E. Direnean Jaungoicoaren eta projimuaren caridadearen contra.

G. Noiz diré caridadearen contra?

E. Eheguin vider austen delaric Jaungoicoaren edo Elizaren manamenduaren bat gauza aundian.

G. Cer da Soberbia?

E. Berceac baño gueyago izateco deseyo gueyeguia.

G. Cer da Avaricia?

E. Ondasunehen deseyu gueyeguia.

G. Cer da Lujuria?

E. Gusto ciquiñehen, eta araguircoaren deseyu gueyeguia.

G. Cer da Ira?

E. Venganzaco deseyo gueyeguiá.

G. Cer da Gula?

E. Jateco eta edateco deseyu gueyeguia.

G. Cer da Envidia.

E. Berceren onaren damua.

G. Cer da Perza?

E. Obra onac eguitecoanimuaren falta.

Zazpi vicio oyetten contra badire zazpi virtute.

Soberbiaren contra, Humildadea.

Avariciaren contra, Generostasuna.

Luxuriaren contra, Castidadea.

Iraren contra, Paciencia.

Gulaaren contra, Templanza.

Envidiaren contra, Caridadea.

Perezaren contra, Diligencia.

Animaren etsayac ceiñetatic igues eguin bear dugun, dire iru.

Lembicicoa, da Mundua.

Bigarrena, Demonioa.

Irugarrena, Araguia.

G. Nor da Mundua?

E. Dire guizon mundanoac, gaichstoac eta corromputuac.

G. Nor da Demonioa?

E. Da Aingueru bat, ceiñ Jaungoicoac cerúan creaturic, manifestatu celacotz bertce aunitzequin batean aren Magestadearen contra, botatu zuen infernura bere gaichstaqueriaco laguneguin, ceiñ deitcen bait ditugu Demonioac

G. Nor da Araguia?

E. Da gure gorputza bera bere pasioneequin eta inclinacione gaichstoequin.

G. Nola garaitcen, eta igues eguiten da, Munduaren ganic.

E. Au igues eguiten eta garaitcen da, bere pomparen eta vanidadearen menospreciorequin.

G. Nola garaitcen eta igues eguiten dá Demoniñen ganic?
E. Oracionerequin eta humildadearequin.
G. Nola garaitcen eta igues eguiten dá Araguiaren ganic?
E. Ari igues eguiten da garaitcen da mortificacione, disciplina eta varraquin: au da etsayaric aundiena, ceren araguia ez dezaguegu botatu gueren ganic, baño bay Mundua, eta Demonioa.
G. Virtute Teologalac dire iru?
E. Lembicicoa, Fedea.
Bigarrena, Esperanza.
Irugarrena, Caridadea.
G. Eta nola ez diogu faltatuco virtute oyetaco actac eguiteco dugun obligacioneri?
E. Errezatuz devocionerequin eta maiz (justo den bezala edocein cristavac eguin dezan) Credoa, Aita gurea, eta erranaz viotcetic contricionezco acta.
Virtute cardinalac dire lau.
Lembicicoa, Prudencia.
Bigarrena, Justicia.
Irugarrena, Fortaleza.
Laugarrena, Templanza.
Gorputzaco sentidoac dire bortz.
Lembicicoa, Beguis icustea.
Bigarrena, Bearriaz aditcea.
Irugarrena, Sudurrez usmatcea.
Laugarrena, Agoz gustatcea
Bortzgarrena, Escuz uquitcea.
G. Certaco eman citigun Jaungoicoac sentidoac, eta berce gañeraco mimbro gueiac?

E. Guciaquin servitza dezagun Jaungoicoa gaura gucietan.

Arimaren potenciac dire iru.

Memoria, Entendimentua, eta Vorondatea.

G. Certaco eman cigun Jaungoicoac Memoria?

E. Oroy gaitecen artaz, eta aren beneficioaz.

G. Certaco eman cigun Entendimentua?

E. Eraguteeco gure Jauna, eta artan pensatceco.

G. Certaco eman cigun Vorondatea?

E. Maita dezagun ontasunic aundiena berala, eta projimua arengatic.

G. Eta cer gaura da gure Arima, ceñenac bait dire potenci oyec?

E. Da ezpiritu bat cein ill daitequena Jaungoicoac deus ecetic creatua bere imagina eta ancera.

Espiritu Sainduaren doayac dire zazpi.

Lembicicoa, Sabiduriaco doaya.
Bigarrena, Entendimentuco doaya.
Irugarrena, Consejuco doaya.
Laugarrena, Ciensiaco doaya.
Bostgarrena, Fortalezaco doaya.
Seigarrena, Piedadeco doaya.
Zazpigarrena, Jaungoicoaren beldurtasunaco doaya.